

BALIO PROPOSAMENA:

Batzuetan, edonolako lanak gauzatzeko orduan lanak egiteko material ezberdinak erabiltzen ditugu. Horren ondorioz, deserosotasuna sentitu dezakegu mementu batzuetan eta lanaren ildoak galdu. Horregatik, gure proiektuaren helburu nagusia hezkuntza-etapa desberdinetako ikasleak, langileak edota enpresaburuak, eta horrelako langileak, beren lanak burutzen dituzten espazioan eroso sentitzea da.

Horrez gain, gure produktuak prezioaren aldetik hainbat abantaila edukiko ditu kontsumitzailearen erosotasuna asetzeko eta erakargarriagoa izateko. Horretaz aparte, webgunean eta erosketa-gunean diseino zehatz bat egongo da, kontsumitzaileak ondo jakin ditzan produktuaren materialak eta produktuaren estruktura zehatza.

Hori gutxi balitz, produktuaren ustekaberen baten aurrean erraz eta eroso itzultzeko denbora mugatua egongo da. Gainera, eskaintzen dugun produktua (mahaia) energia berriztagarriarekin kargatzeko aukera edukiko du lana egitean erosotasuna eskaintzeaz aparte.

TDH-daukaten ikasleei/langileei egokituta egongo da ere gure produktua. Horrela, beraien beharrak asetuko genituzke eta aldi berean produktua errentagarriagoa bihurtuko litzateke. Pedal batzuk mahiaren azpian jartzean datza aldaketa hau. Horrela, lan egiten duten bitartean pedalei eman diezaiekete eta horren ondorioz, energia pixka bat lortuko lukete ordenagailua kargatzeko.